

ASTE SANTUA 2022 SAGARDOETXEAN: "SAGARDOA ETA EUSKAL HERRIKO GAZTEN DASTAKETA"



**Aste Santu honetan Sagardoetxeak dastaketa gastro-
nomiko berezia eskainiko die bisitariei. Ohiko bisita
gidatuaz gain, Sagardoetxeak sagardoa eta Euskal
Herriko gazten dastaketa eskainiko du: Idiazabal J.D.
gazta, Roncal J.D. gazta eta Iraty J.D. gazta.**

Data honetako ohiturari jarraipena emateko, Sagardoetxeak
sagardo eta **gazta** dastaketa berezia eskainiko du apirilaren 14tik
24ra bitartean.

Gainera, aurtengo Aste Santuak **sagarrondoaren loraldiarekin** bat egingo du eta museora gerturatzen
diren bisitariek sagastiko paisaia ederraz eta erleen munduari buruzko edukiez gozatzeko aukera
izango dute.

Sagardoetxeako bisitaren ostean, bisitariek jardunaldia **sagardotegiko otorduarekin** osatzeko aukera
izango dute txotx-aren errituaz gozatu eta sagardoaren kulturako esperientzia borobiltzeko.

Bisiten ordutegia:

- Apirilak 14-17: 11:00, 12:00, 13:00, 16:30, 17:30, 18:30
- Apirilak 19-23: 11:00, 12:00, 13:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00
- Apirilak 18 eta 24: 11:00, 12:00, 13:00

Tarifak:

Sagardoetxeako bisita gidatua dastaketarekin:

- Helduak: 6,50€
- Haurrak (10-17 urte): 4,50€
- Haurrak (0-9 urte): museoko bisita doan, dastaketarik gabe

Sagardoetxeako bisita gidatua dastaketarekin + Sagardotegiko otordua:

- Helduak: 40,50€ (sagardotegiko ohiko menuarekin)
- Haurrak (10-17 urte): 21,50€ (menu bereziarekin)
- Haurrak (0-9 urte): 17€ (museoko bisita doan, dastaketarik gabe + menu berezia).

Erreserbak eta informazioa:

Telf.: 943550575
E-maila: info@sagardoetxea.eus
Webgunea: www.sagardoetxea.eus